

# **Jesusen Lagundiaren Obren<sup>1</sup> Berezko Ezaugarriak –Loiola Probintzia–**

## **Zergatik agiri hau?**

Agiri hau Loiola Probintziari dagozkion Lagundiaren obretan ignaziotar identitatea azaltzeko eta mantentzeko idatzia izan da<sup>2</sup>. Bere misiorako eremu orientatzaile bat jartzen du aukeran eta ignaziotar espiritualtasunaren argitan bildutako eta obra guztiek erakutsi beharko lituzketen hainbat ezaugarri identifikatzen ditu. Zentzu horretan, zuzendaritza taldeek eskuartean duten misioaren definiziorako laguntza bihurtzen da, eta baita egunero hartu beharreko erabakietarako gidari ere. Halaber egin behar diren barne nahiz kanpoko ebaluazioetarako oinarria da, ezinbestekoak baitira obren misioa etengabe egokitzen joateko. Era honetan Ministerioen Batzordearentzat –eta Probintziako Gobernuarentzat– baliotsu izango da garai bakoitzari dagozkion erabaki apostoliko egokienak hartzeko.

“Eliza, bere misioa partekatzen baitugu guk, ez da beretzat egina, gizadiarentzat baizik, Jainkoaren maitasuna aldarrikatuz eta maitasun horren barne dohainari argia isuriz. Gizarte osoan Jainkoaren Erreinua gauzatzea da bere xedea. Lagundiaren misioa, Eliza osoaren ebanjelio-misioaren barnean kokatzen da. Misio hau errealitate baterakoia da baina konplexua eta era askotara garatzen dena. Honako neurri hauek ditu bere baitan: norbere bizitzaren lekukotza eta aldarrikapena, konbertsioa, inkulturazioa, lekuko elizen sorrera, elkarrizketa eta Jainkoak gogoko duen justiziaren sustapena. Eremu honetan eta gure karismaren arabera... Lagundiaren egungo misioa *fedearen zerbitzua eta gizartearen ebanjelio-justiziaren sustapena* da, Jainkoaren maitasunaren eta errukiaren sakramentu bat bezala baita izan ere”.

*34. Kongregazio Orokorra, 2. d., 3. zenb.*

---

<sup>1</sup> Lagundiak “obra apostoliko”, edo “obrak” soilik deitzen die –agiri honetan egin dugun bezala– helburu apostolikoetarako nolabaiteko batasuna eta antolakuntza iraunkorra duten, eta jesuitek beren lan apostolikoak egiten dituzten, Lagundiaren erakunde bereziei, hala nola unibertsitateak, ikastetxeak, gogo-jardun etxeak, aldizkariak eta baita beste antzeko obrak ere. (NC. 188 §2).

<sup>2</sup> Helburu hau Loiola Probintziaren Proiektuan adierazia dago: “ignaziotar espiritualtasuna gure obren zehar-ardatz modura bultzatu”.

## Lagundia, misiorako gorputz bat<sup>3</sup>

Lehen jesuitek Lagundiaren sorreratik ulertu zuten misiorako gorputz bat osatzen zutela. Gogo-jardunetako Gizakundearen kontenplazioak argiturik, Kristo zerbitzatzeko eta Bere Erreinuaren hots egite eta eraikitze misiorako deia nabaritu zuten. Ordudanik, Lagundiak Aitarengandik jasotako dohain gisa bizi izan du zeregin hori, berorretan partaide garenok –laiko nahiz jesuita– gizaki guztiekin senidetzen gaituen oparia, beraiekin solidarizatzen gaituena –gehien sufritzen dutenekin bereziki– eta gure fedea soilago eta ebanjelikoago egiten duena. Misio honetan elkarrekin lan egitera deituak sentitzen gara, gorputz bakarra osatuz, gure lehen lagunek egin zuten bezalaxe.

### *Obra apostoliken premia historikoa*

Lagun hauek, bere sorreran, diasporako talde bezala antolatu ziren, ibiltaria eta guztiz malgua zena, eta egiteko desberdinenetara eskaintzeko gertu zegoen taldea: jendaurreko hitzaldiak, Jainko-hitzaren ministerioa, gogo-jardunak, haurren eta ezjakinen kristau heziketa, aitortzak, haserretuen adiskidetzak, kartzeletako eta erietxeetako zerbitzuak eta beste karitate-obra batzuk<sup>4</sup>.

Alabaina, oso goiz hasi zen Lagundia, hasieran aurreikusi ez zituen obra apostolikoak sortzen. Lehenengo obrek, arrazoi historikoen eraginez, heziketa izan zuten helburu: Mesina hiriko agintariak eskatu zioten Ignaziori ikastetxe bat sortu eta bertan teologia, arteak, erretorika eta gramatika irakasteko. Eskari honen ondoren beste batzuk etorri ziren Palermo, Gandia, Kolonia, Napoli, Venezia, Erroma... Laster ministerio hark hartu zuen lehentasuna. Ignazio hil zenean Lagundiak hezkuntza arloan 35 obra apostoliko zuzentzen zituen gutxienez. Erabaki honek aldatu zuen hasierako ibiltari izaera hura hiri ugaritan kokapen finko bilakatuz. Jesuitek ulertu zuten, jasotako misioari zintzo erantzuten uzten zirela obra apostolikoek eta ezinbesteko zirela, gainera, zenbait eremutan.

Bi mende geroago Lagundiak hiri-esanahi handiko zortziehun obra apostolikotik gorako sarea zuen eraturik eta finkatu ziren lekuetan kultur arrastoa utzi zuten. Obra haietan misio-kide ziren pertsonak beren garaiko jendearekin harremanetan jarri ziren, haien ohituretan eta bizitza ikusteko eretan eragin zuten, behartsuenenganako arreta sustatu zuten eta beraiekin batera bizi zirenek ulertzeko eran adierazi zuten fedea. Aldi berean, finkatu ziren lekuetako kulturez<sup>5</sup> kutsatzen utzi ziren eta beroietan zeuden Jainko-arrastoak aurkitu zituzten. Jesuitek eta beren erakundeek eurak bizi ziren kulturetan aurkitu zuten bizitzaren Jainkoa eta horregatik bultzatu zuten hauen errespetua, arreta eta sustapena. Pertsona haien eta sortu zituzten erakunde sozialen kultur eragina oso garrantzitsua izan zen.

---

<sup>3</sup> Hemen azaltzen diren zenbait datu O'Malley, John W.-ren, *Los primeros jesuitas*, liburutik jasoak daude. Mensajero eta Sal Terrae Arg., 1995, 249. or. eta hur.

<sup>4</sup> *Exposit debitum* Formula, Julio III.ak onartua, 1550ko uztailaren 21ean.

<sup>5</sup> Agirian erabili dugun kultura hitzaren esanahia bat dator 34. KO., 4. d., 1. zenbakiarekin: “kultura pertsona talde batek duen bizitzeko, pentsatzeko, sentitzeko, antolatzeke, ospatzeko eta bizitza partekatzeke era da. Edozein kulturak ditu berekin bere balioen, esanahien eta mundu ikuspegiaren sistemak eta kanpora adierazterakoan hizkuntza, keinu, sinbolo, errito eta bizitzeko era desberdinen bidez baliatzen da”.

### *“Fede-justizia” misio berria*

Lagundiaren misioak bere sorreran “fedearen defentsa eta zabalkundea, eta, kristau bizitzan eta ikasbidean, arimen probetxu hobea”<sup>6</sup> izan zuen ezaugarri nagusi. 1975. urtean, lurbira osoan injustiziak hartu zuen neurriaz jabeturik, 32. Kongregazio Orokorrek<sup>7</sup> misio hau “*fedearen defentsa eta justiziaren sustapena*”<sup>8</sup> bezala adierazita utzi zuen. Akats eta mugen artean, honek, berekin ekarri zuen, pastoral eta heziketa erakundeak klase behartsuenen aldera berriro zuzentzea, zenbait komunitate hirien inguruetara aldegitea, egitura aldaketak lortu nahi zituzten zentro sozialen sorrera... eta baita txiroengandik hurbilago zeuden beste ekinbide batzuk bultzatzea eta beren arrazoibideetan inplikatzeko ere.

Hogei urte geroago, 34. Kongregazio Orokorrean eta saiakera askoren ondoren, Lagundia ohartu da, egitura hauek jartzen diren lekuko kulturaren taiuera aldatzen ez baldin bada, egitura politiko eta ekonomikoen eraldaketarik ez dela gertatzen –hain garrantzitsua, bestalde, okerren daudenak duintasunez biziko badira–. Bizitzeko era zehatz bat da munduarekin, Jainkoarekin eta besteekin harremanetan sartzeko era, ez-sinestera eta injustiziarako bide ematen duena. Hau da, mugitzen garen kultur testuingurua bera da, hain zuzen ere, sarritan fedea hots egitea eta justiziaren alde lan egitea eragozten duena.

### *Solidaritate-komunitateen bidez burutzen den misioa*

Era berean antzinako jesuitek fedearen eguneratze adierazpenean kultur eragin onuragarria izan zuten bezala, 34. Kongregazio Orokorrek, harremanetan honako balioak izango zituzten giza taldeak eraikitzea proposatu zuen: balio berriak, kontrakulturalak, pertsonak interpelatzen dituztenak eta mundu injustu bat antolatzeko moduekin kritiko direnak; hots, **fedetik solidaritatea bizi eta sustatuko duten komunitateak**. Honela deitu zituen: *solidaritate-komunitateak*. Komunitate hauek deituak daude: senidetasunaren ikur izatera –beren bizitzeko eta harremanak izateko eragatik–, dauden lekuan fedea eguneraturik adierazi eta hots egitera –fedea bizi eta komunikatzen dutelako–, eta solidaritatea eta justizia sustatzera –txiroen kezka lehenesten dituztelako–. Horixe da, gaur egun, Kristori bere misioan zerbitzu hobea emateko ikusten ditugun bidea.

Era honetan lan eginez, txikitutako mundu honen osaketan parte hartzeko gogoia aurkitzen dugu gizartean. Pertsona asko dira, sineste eta bizibide guztietakoak, justizia, bakea eta berdintasunean oinarritutako mundu berri baten eraikuntzan parte hartu nahi dutenak. Une historiko honetan, giza familiaren berreraikuntzan parte hartzeko, gure esku eta ahaleginak borondate oneko gizaki guztiekin elkartu premian sentitzen gara.

---

<sup>6</sup> *Exposcit debitum, op. cit.* formula.

<sup>7</sup> Kongregazio Orokorrek, munduko Probintzia guztietatik etorritako jesuiten batzarrak dira eta Lagundiarentzako garrantzia nabarmena duten gaiak eztabaidatzen dira bertan. Lagundiaren lege botere nagusia duen organoa da. Historian zehar eta gaur arte 34 izan dira guztira. 32. Kongregazio Orokorra 1975. urtean izan zen.

<sup>8</sup> 32. Kongregazio Orokorra, 4. d., 2. zenb.

Honela, gaur egun, fedetik solidaritatea bizi eta sustatuko duten komunitateak eraikitzea jesuita erakunde guztiei<sup>9</sup> dagokien egitekoa da, denek baitute giza senidetasunaren lekuko izateko erantzukizuna, pertsonak Jesusen Jainkoaren topaketan eta justiziaren aurrerapenean Haren lankide izaten laguntzekoa. Hori izan daiteke gure ekarpena, kulturak Ebanjelioaren balioz kutsa daitezen, bide bakarra baita giza egiturak aldatzeko. Horregatik bada, gure obra guztiak daude hainbat ezaugarri hedatzera deituak, geureak deitzen ditugunak baina tradizio luze eta dinamiko horren emaitza direnak.

### Fedearen defentsa eta justiziaren sustapena

Jesusen Lagundiko obra guztiek partekatzen duten misioa da. Horretarako lan egiten dute: euren bizitzetan giza senidetasunaren lekukotza emateko, Jesusen Jainkoarekin banakako topaketa egiten laguntzeko eta justiziaren aurrerabidean Haren lankide izateko.

*(Probintziako Misioaren testutik)*

---

<sup>9</sup> Lagundiak, alorren batean, obra apostoliko bat –heziketa, hedabideak, fede-kultura elkarriketak, garapenerako lankidetzak...– sortzen duenean, Lagundiaren misioa jarduera horretan gauza dezakeelakoan egiten du. Obra hauek garatzen dituzten jarduerak beren-berenak diren helburuak dituzte, maitatuak eta errespetatuak direnak. Obra apostolikoek, jardueraren helburuengatik –tresna bilakatu gabe, beraz– eta Lagundiaren misioarengatik lan egiten uzten dute, aldi berean. Are gehiago, helburu horientzako zenbat eta lan hobea egin orduan eta hobeto betez gure misioa. Honela, Lagundiaren misioa alor horretako lan berarekin batera egiten da. Obra hauek, beraz, elkar aberasteko bide ematen dute, ez norgehiagokarako. *Alabaina*, hori ez da automatikoki nabarmentzen, ezta behin betirako izaten ere; etengabeko egokitze ahalegina eskatzen du. Ez da teoria hutsagatik ere baimentzen, baizik praktikan baieztatzen da. Lagundiak, aldian behin, obra apostolikoa ebaluatu egin behar du, jakiteko zein neurritan ari den betetzen Lagundiaren misioa ala utzi egin dion betetzeari. Honela, une historiko jakin bakoitzean “justizia garatzen duen fedearen defentsa” gehiago laguntzen duten alorretara malgutasunez zuzentzeko eta, berez onak izanik ere, laguntzen ez dutenak baztertzeko prestatua egon behar du.

## Lagundiaren obraren berezko ezaugarriak

Ondorengo orrialdeetan aurkeztuko dugu Lagundiaren obraren berezko ezaugarrien zerrenda bat. Lehen atalak, **obraren misioari** dagozkion alde orokorrak jasoko ditu, honen definizioa eta Lagundiaren beste obrekin behar duen ezinbesteko harremana. Ondoren jasoko ditugu misio hau hedatzen duten hiru multzo nagusien inguruko ezaugarriak eta aipatu ditugunak jada: **komunitatea, fedea eta justizia-solidaritatea**.

### 1. Misioaren alde orokorreko dagozkien ezaugarriak

“...Lagundiaren obra batek, batez ere, haren misioa burutzeko zeregina du, ignaziotar balioak adierazten ditu eta Lagundi beraren onespenez “jesuitikoa” deitzen da. Lagundiak bere gain hartzen du obraren “azken erantzukizuna”. Obra hauek, beren helburua argi utziko duen eta beraiekin lankidetzan aritzeko oinarri izango den, misioaren adierazpen garden baten bidez zuzendu behar dira. Adierazpen hori lankidetzan ari garen pertsonen argi aurkeztu eta adieraziko zaie...”

*34. Kongregazio Orokorra, 13. d., 11-12. zenb.*

#### a. Proiektu mugatu eta zehatz bat dago:

- Obraren misioa, ikuspegia eta oinarrizko aukerak definitzen dituen proiektua, Lagundiaren eta Probintziaren misioan txertatua –fedea eta justizia gakoaren bidez adierazia, beraz–. Definizioaren ibilbidea zuzendaritza taldeak gidaturik dago eta bertan obraren komunitate apostolikoak –Kristoren misioan zerbitzari izatera eta obra apostolikoa den eliza-zati zehatzean elkarlanean aritzera deitutako jesuita eta laiko talde– parte hartzen du eta baita, Probintzia-buruaren eskariz, Probintziako zenbait sektorek ere. Probintzia-burua da, azkenean, obraren proiektua onartzen duena.
- Proiektuaren aukera nagusiek –ardatz orokor edo estrategiko ere deituak–, eta baita eguneroko lana zuzentzen duten ekintza larroek ere misio-garapenean laguntzen dute. Kalitate sistemak eguneroko praktikaren eta obraren misioaren arteko koherentzia errazteko erabil daitezke.
- Obrako kideen behar besteko kopuruak partekaturiko proiektua da, bere lanaren sustatzaile gisa ari dadin. Iritzi orokorra jaso behar du, bai askoren lankidetzarekin eraikia izan delako edo baita zuzendaritzak, bitarteko egokien bidez, berori onartzen eta barneratzen lagundu duelako ere.
- Proiektuak obraren bideragarritasun ekonomikoa aintzat hartu behar du, nahiz eta obrari ekiteko edo jarraitzeko orduan erabakigarria ez izan.

#### b. Obrak, berez duen onena<sup>10</sup> ematearren etengabe diszernitzen du:

- Obra ez da edozein zerbitzurekin konformatzen, baizik Jainkoak berorretatik zer nahi duen diszernitzen du, erabakitako proiektuaren barruan aldaketak eta onurak<sup>11</sup> ipiniz eta, bere sektorearen eta kokatzen den errealitate historiko eta sozialaren, berezko baldintzetara egokituz.

<sup>10</sup> Ezaugarri hau ignaziotar *magis*-ari loturik dago.

<sup>11</sup> Alderdi honek ez du nabarmentze edo aitormen handiagorik bilatzen, baizik obraren helburura gehien lagunduko duenaren bilaketari loturik dago.

- Bere norabide apostolikoak aukeratzekoan batez ere aintzat hartzen dituen irizpideak hauek dira: “premia handiena” –injustizia egoera larriak adierazten dituelako–, “fruitu gehiena” –solidaritate komunitateak sortzen laguntzen duelako– eta ondasun “unibertsalena” –egitura aldaketak eragiten dituen ekintzak direlako–<sup>12</sup>.
  - Erakundeen ahalegin premiazkoenak ezarri ahal izateko, obraren misio-betetzea eta bere ezaugarriak ebaluatuak izaten dira aldizka. Neurri hau barneko nahiz kanpoko<sup>13</sup> ebaluazio apostolikoaren bidez burutu daiteke.
- c. Pertsona erdigunean dago:
- Obraren barruan pertsona xede bat da bai hartzaileen aldetik eta baita obrako egileei dagokienez ere.
  - Lehenengoz, hartzaileak dira obraren erdigunean daudenak. Misioaren aldaketak eta egokitzapenak hauen zerbitzu hobearen atzetik eginak daude eta obraren xede guztiak daude zerbitzu horren mende.
  - Obrak, pertsona behartsuenei, eta baita gutxien zaindutako talde sozialei edo baztertuenei ere, bere zerbitzuak eta baliabideak nola eraman bilatzen du.
  - Obra osatzen duen pertsona bakoitzaren giza eta lanbide garapena hartzen da oinarrizko irizpide gisa ondorengo prozesu hauetan: hautaketa orduan, erantzukizunak ematerakoan eta pertsonen aitorpenean.
- d. Obra inkulturatua dago:
- Obra dagoen errealitate sozialean inkulturatzen da, kultura gutxituen aitorpena eta onarpena laguntzen ditu eta babesa ematen die. Elebitasuna pertsonen eta hauen kulturaren errespetu eta arretaren adierazpen gisa ulertzen du.
  - Fede-kultura elkarrizketa zaindu eta sustatzen du.
- e. Probintziako Subjektu Apostolikoren eta eliza-gorputzaren zentzua garatzen ditu:
- Probintziaren beste obrekin elkarlanerako lehentasun-hitzarmenak eratzen ditu, era horretan sektore arteko lana lagunduz.
  - Bere komunitate apostolikoak beste obra batzuetan dauden komunitate apostolikoekin topaketa uneak izaten ditu.
  - Bere formazio-programak Probintziako beste obratitik datozen pertsonekin harremanak izateko uneak ere baditu.
  - Lagundiko eta Elizako beste erakundeekin lehentasunezko lankidetzara irekita dago.

---

<sup>12</sup> 34. KO, 3. d., 22. zenb.

<sup>13</sup> Lagundiaren legeriaren arabera (NC 260 §1), kanpoko ebaluazio apostolikoaren ardura A. Probintziala buru duen Ministerioen Batzordeari dagokio.

## 2. Komunitatearen sustapena

Hasieran esan dugun bezala, obrak, anbigutasun eta kontraesan artean, eraiki nahi dugun senidetasunaren ikur eta mundu honetan sustatu nahi ditugun balioak bizitzen diren gune izan daitezke.

“Azken hamarkadetako gure esperientziak erakutsi digu aldaketa soziala ez dela egitura politiko eta ekonomikoen eraldatze soilak, izan ere, berez, balio eta jarrera soziokulturaletan baitituzte hauek beren sustraiak. Erabateko giza askapena, behartsuarentzat eta gu guztiontzat *solidaritate-komunitateen* garapenean oinarritzen da. Hauek herri mailakoak, baina ez gobernuakoak, eta maila politikokoak izan daitezke, bertan garapen gutiz gizatiarra lortzeko lanean denok lagun dezakegarik”.

*34. Kongregazio Orokorra, 3.d., 10. zenb.*

### a. Kideetasun sentimendua eraikitzeko lan egiten du:

- Topaketa eta elkarrizketa lekua da, bertan talde lanari leku egiten zaio eta norbere harremanak, adiskidetasuna eta elkarren estimua laguntzen dira.
- Obraren misioa partekatua da eta ahal den pertsonarik gehienekin<sup>14</sup> aberastua, bertan lan egiten dutenen asmo eta itxaropen-biltzaile gisa aritzen delarik.
- Elkarbizitza bere arrakasta eta porrotekin ospatzen da.
- Komunikazio giroa, elkarrizketa eta harreman ona egoten laguntzen duen komunitate apostoliko<sup>15</sup> baten jabe da. Beronek laguntzen du komunitate sentimendua eraikitzen.

### b. Gobernu modua:

- Badira erabakitze bide garbiak, erabakiak nork hartzen dituen eta baita galde-eskarien berri erakusten dutenak ere.
- Taldeen batzar luzeetan –batez ere zuzendaritza edo erabaki ardurak daudenetan– denbora bat hartzen da elkarrekin otoitz egiteko.
- Erabakiaren garrantziaren arabera elkarren arteko otoitz diszernimendu esplizituagoak egiten dira<sup>16</sup>.
- Obraren sakoneko erabakiak direnean komunitate apostolikoekin, dagokion sektorearekin eta Probintzia-buruarekin hitz egiten da. Ekintza honek erantzukizunak denon artean hartzen laguntzen du eta obraren barruko motibazioa indartzen du.
- Gobernu modu pertsonala sustatzen du, pertsona eta erakunde arteko komunikazio emankorra eta konfiantzazkoa, guztien artean sentimendu bera eta gorputz bereko zati izateko kontzientzia zabaltzen delarik.

<sup>14</sup> Osagai hau 5. orrialdean ere aipatu da, zeren misioa indartzen eta kideetasun sentimendua osatzen laguntzen duela uste baita.

<sup>15</sup> Komunitate apostoliko hau *Komunitate Apostolikoen eraketa obratan* testuan adierazia dago. Han zehaztasun gehiago aurkituko da eta baita egitekoen eta erantzukizunen azalpen gehiago ere.

<sup>16</sup> Horretarako dago *Elkarren arteko otoitz diszernimendua* dokumentua.

- c. Pertsonak formatzen ditu:
- Formazioak, pertsonen<sup>17</sup> eta Subjektu Apostolikoaren<sup>18</sup> garapena eta trebatzea bilatzen du, obran ahalik partehartze osoena eta motibatuenan izan dezaten.
  - Formazio-egitarau argi eta egituratua dago.
  - Laguntasun-bide egokiak eratzen ditu pertsonen aberastasunerako eta formaziorako.
- d. Bereganatzea eta sustapena:
- Zerbitzu profesional ona eta misioaren jarraipena eta obraren ignaziotar nortasuna berma dezaketen pertsonak bereganatzen ditu.
  - Gizon-emakumeen oreka egokia eratzen du.
  - Lan munduan sartzeko zailtasunen bat izan dezaketen guztien aldeko bereizketa positiboa egiten du: ezinduak, etorkinak eta beste baztertu taldeak.
  - Familia eta lan bizitza lotzen laguntzen du.
  - Pertsonak bere lana egiterakoan behar duen aitormen positiboaren kultura dago.
  - Ardura eta erantzukizun berriak hartuko dituzten pertsonak hautatzeko era egokiak egituratzen ditu eta baita berauen izendapenerako irizpideak ere.
- e. Oinarri etikoak errespetatzen ditu:
- Obrak arau etiko orokorrak eta profesionalak betetzen ditu: gehiegikeriak saihesten dituen egitura zuzen eta gardena du. Eskubide urraketen aurrean badaude helegiteak jartzeko instantziak.
- f. Barne gatazken konponketa:
- Badaude barne gatazkek identifikatzeko moduak, eta baita honelako kasuetan jotzeko instantzia garbiak ere.
  - Obraren maila desberdinetan, gatazkei aurre egiteko erak egituratzen dira. Alderik ahulenaren begirunea, errespetua eta defentsa adosten duten bezala adosten dute kalitate zerbitzua mantentzea eta obraren misioa betetzea ere.
- g. Ekonomi eta finantza aldetik gardena da:
- Probintziaren Gobernuarekin gardena da.
  - Obraren parte hartzen duten pertsonekin gardena da –obran betetzen duten arduraren arabera beharrezko ikusten den neurrian, baina pertsona guztien arteko gutxieneko komunikazio maila mantenduz–, beren egitekoa garatzeko baldintzen ardura har dezaten eta baita egiteko horrek aurkezten dituen muga eta lorpenena ere.

---

<sup>17</sup> Pertsona osoaren ikusmuga Nazaretoko Jesusengan aurkitzen da. Gizaki honek beharko lituzkeen ezaugarri sorta on bat *Pertsona Ignazioaren bidean* dokumentuan aurkitzen da.

<sup>18</sup> Xehetasun gehiagorako, ikus Misio Testuaren 4. Oinarrizko Lehentasuna.



## 1. Fedea hots egitea

Bada zenbait ezaugarri, bereziki fedea hots egiteari dagokiona, hau da, obra osatzen duen pertsona taldeak –lehen aipatu dugun komunitateak–, pribatutasunagatik nabarmentzen den gizarte batean, jendaurrean fede bizitzaren bideragarritasuna adierazteko aukera izateari dagokiona, alegia. Aldi berean, Jesusen Jainkoagatik eraikitzen duen senidetasunagatik eta lanean ari den justizia eta eraldaketa sozialagatik hitz egiten duen fedea.

“Erreinua nahi duen fedea, norgehiagoka eta desegite sozialik gabeko komunitateak sortzen ditu. Fedetik dator Jainkoak maite duen justizia, giza familiak Jainkoarekin duen bakea eta gure artekoa...”

*34. Kongregazio Orokorra, 2.d., 13. zenb.*

### a. Fedearen kultur onargarritasuna adierazten du:

- Korporatiboki Lagundiarena dela aitortzen du. Beraz, espresuki konfesionala eta Elizaren zati da.
- Pertsona-komunitate anitza osatzen du, sinestunek euren fedearen eta beren kristau motibazioen jendaurreko aitormena eginez eta beren sinesmen eta ideiak partekatzen ez dituztenak errespetatuz.
- Obra osoaren sinestun mailako ospakizun uneak ditu.

### b. Fedean eta espiritualtasunean hazteko bideak eskaintzen ditu:

- Jainkoarekin bakarkako harreman esperientziak eta uneak eskaintzen ditu, norbere bizitzari buruzko hausnarketa lagunduz.
- Pertsonen laguntasun-bideak<sup>19</sup> neurri espiritual bat du berekin eta bere sinestun adierazpidera irekita dago.
- Fede-heldutasun ibilbideak laguntzen ditu eta ignaziotar espiritualtasuneko prestaketa bideak eskaintzen ditu.

### c. Fedetik munduarekin elkarrizketan:

- Munduko ikuspegi anitzen topaketa-foro bat osatzen du<sup>20</sup>. Fedearen oinarritzko hipotesietatik elkarrizketatzen da beraiekin.
- Kultur adierazpide anitzei egiten die leku, kultur pluraltasuna onartuz honela.
- Bereziki, bera dagoen kultura bereganatzen du: haien hizkuntza, haien adierazpideak, pertsona-artean dituzten harremanak eta haien munduaren aurrean kokatzeko moduak.
- Pertsonen errealitate desberdinetan eta beren kultur adierazpenetan bilatzen du Jaunaren presentzia eta interpelazioa.

---

<sup>19</sup> 8. orrialdean aipatua

<sup>20</sup> Ezaugarri hau batez ere kulturarekin elkarrizketan ari diren erakundeei dagokie.

### 3. Justizia eta Solidaritatearen sustapena

Ignaziotar obra batek berez izan behar du justiziari eta solidaritateari egindako zerbitzu bat. Bizi garen mundu anitzean, hitzak hain esanahi bikoitzeko direnez, era solidarioan jokatzeko bide hau da bizitzaren Jainkoaz argien mintzo dena, zeren Jainkoak munduan duen presentzia eta lanerako moduarekin sintonizatzen baitu.

“Gure alor apostoliko bakoitzean sortu behar ditugu justiziaren bila dabilzan solidaritate komunitateak. Gure lankideekin batera lan eginez, gure ministerioek justizia eragin dezakete eta eragin behar dute ondorengo moduren batean edo batzuetan: behartsuei zuzeneko zerbitzua eta laguntasuna emanaz; justizia eskarien kontzientzia hartuz, berori burutzeko arduraren sozialarekin batera; ordena sozial zuzenago baten aldeko mobilizazioetan parte hartuz”.

249. Arau Osagarriak, §3<sup>21</sup>

#### a. Bidezko ekintzetan inplikaturik eta jendartean horregatik ezaguna:

- Justizia bere neurri desberdinetan defendatzen du: giza eskubideak, egungo globalizazio azeleratuak eragindako desberdintasun gero eta areagoa, bizitza bere maila guztietan, mehatxatutako kulturen defentsa, ingurumenaren babesa<sup>22</sup>.
- Justiziaren alde borrokatzen diren erakundeekin loturak sortzen ditu, nahiz eta bere eremu profesionalekoak ez izan.

#### b. Behartsuengandik hurbila:

- Egituraz pertsona behartsuenen zerbitzuan –zuzenean edo zeharka–.
- Behartsuak eta baztertuak, neurri esanguratsuan, obraren zuzeneko onuradunak izatea bideratzen du.
- Lankideei injustizia errealitateekin harreman esperientziak eskaintzen dizkie eta justiziak gauzatzen duen fede irakurketa egiten laguntzen die.

#### c. Ebanjelioko pobrezia irizpideekin egiten du bere apostolutza:

- Erabili beharreko bitarteko materialei buruz diszernitzen du, obraren eraginkortasun apostolikoa bermatuz, behartsuenganako<sup>23</sup> konpromiso eta hurbiltasun handiagoa adieraz dezaten.
- Obrak eskura ditzakeen etekinak Probintziaren beste behar apostolikoetarako eta premia gehien duten pertsonen zerbitzurako daude jarriak.
- Erabiltzen dituen baliabideak ingurunearen errespetua aintzat hartzen dute, bere jarduerak egungo biztanleria eta etorkizunekoak naturaren elikatzeko gaitasuna arriskuan jarri gabe.

#### d. Errealitatea era kritikoan aztertzen du:

- Munduko errealitatearena eta bere kultur aldaketei buruzko ikuspegia lantzen<sup>24</sup> eta eskaintzen du, bertan injustizia eragiten eta fedea eragozten duten jokabide gaiztoak azaleratuz.
- Azterketak obraren jarduerak gertatzen den ingurua arreta gehiagoz ikertzen du, bertan baitu izan ere ezagutza eta aginterik gehien. Azterketa horretatik ateratzen ditu misioaren berrikuspenerako beharrezko ondorioak.

<sup>21</sup> Arau Osagarrien zenbaki honek, 34. KO, 3. d., 19. zenb., berresaten du.

<sup>22</sup> 34. Kongregazio Orokorra, 3. d., 5-9. zenb.

<sup>23</sup> P. Kolvenbach, *Reacciones a la carta sobre la pobreza*, 2004, 4-5. or.

<sup>24</sup> Egiteko gaitasunik ez badu, beste erakundeekin laguntza eskatzen du.

- e. Gatazka sozialak bere egiten ditu eta aurre egiten die:
- Bera sarturik dagoen inguruko gatazka sozialak ezagutzen ditu eta bai bere egin ere hazteko eta hobetzeko bide bezala.
  - Gatazka hauei buruzko benetako elkarrizketa sustatzen du bere barnean.
  - Adiskidetze zereginen parte hartzen du bizitza publikoko alor desberdinetan.

## **Ondorioa**

*Pertsona Ignazioren bidean* dokumentuan gertatu bezalaxe, goi mailako ideal batekin aurkitzen gara berriro. Zaila izango da osorik betetzen, baina bere aldera zuzen ditzakegu gure urratsak. Erronka ikaragarria da: gure obretan, Elizaren krisi garai honetan, ignaziotar perfila mantentzea gizartea eta Eliza hobeto zerbitzatzeko. Berriz ere barne tentsioa mantendu beharra daukagu, ahuldu gabe.

Agiri honek badu, gure obren Ignaziotar izaeraren ikuspegi sintetiko bat ere: senide gisa bizi diren giza talde aberats eta geldiezinez osaturik daude, gure mundu hau hobetuz arduratzen dira, okerren daudenen onerako, Elizako kide sentitzen dira eta kalitatezko zerbitzua eskaintzen dute. Obretan bertan argi ikus daiteke hori, familia giroa. Aurreko orrietan aipatu ditugun ezaugarriek ikusmuga hau erakusten digute eta horretan aurkitzen dute beren zentzua.

Ibilbide honek guztion lankidetzara eskatzen du, Lagundiaren misioarekin bat eginda sentitzen diren pertsonena batez ere. Berez, erakunde bakoitzaren misioa burutzeko gutxieneko masa kritiko bat beharrezkoa izango da obra bakoitzean, Lagundiaren misioaren zehaztapen bezala. Pertsona hauek moral nahiz erakunde mailako babesa beharko dute. Bestela, erakundeek jarraituko dute juridikoki Lagundikoak izaten, baina ez dira ignaziotar izango ez beren jarreran ezta beren goi-argian ere.

Beraz obrek beren funtzionamenduan gardenak izan behar dute eta egin daitekeen kanpoko ebaluazio apostolikoan parte hartu. Lagundia beti saiatu da kontzientzia argitasunaren bila gobernu hobea egin ahal izateko. Honek norbere akatsak eta mugak aitortzeko gai izatea eskatzen du. Era berean ohitura onak ezagutzeko eta, honela, elkarren arteko aberastasuna eta sektore arteko lankidetzara laguntzeko bidea emango digu.

Dokumentu honek, uste dugu, gure obren planifikazioa argitzeko eta ignaziotar ebaluaziorako adierazle baterakoiak eskura jartzeko balio dezakeela. Era honetan, etorkizunean gure lehentasunak balioztatzeko ezinbesteko tresna bilaka dakiguke, eta baita erakunde berriak sortzerakoan nahiz beste batzuek uzterakoan ere.

*2005eko maiatza.*